# ILUSIONES ROTAS

El 2005 se nos ha ido apaleado y golpeado. La guerra de Irak y Afganistán y los brutales conflictos armados como el de Chechenia continuarán a lo largo del nuevo año que muchos de nosotros comenzamos con ilusión y cambios, agradeciendo eso sí, estar en este lado del mundo.

Nuevas pestes azotan a la humanidad, la pobreza, la corrupción, la explotación infantil y el medio ambiente que continua imparable su camino hacia el abismo. Un balance que fusila la esperanza.

Estados Unidos y Gran Bretaña invadieron Irak: las armas de exterminio que Sadam Hussein poseía continúan en paradero desconocido. A primeros del 2006 mientras muchos nos despertábamos llenos de alegría para celebrar con nuestros familiares un año nuevo, la población de Irak se despertaba con tres coches- bomba que cubrían sus calles de sangre y dolor. ¿Qué ha sido de la dignidad humana?

El 2005se va colérico, tsunamis, huracanes, guerras perdidas, desprecios a la libertad, lápidas de niños inocentes, muertes de soldados desconocidos, falsos profetas libertadores, profesionales de guerra que no tienen nada mejor que diputarse el mundo y cargarnos de dolor humano e impotencia social.

En nuestro país el año no termina mejor, más de sesenta mujeres han sido asesinadas en manos de sus parejas o de los que algún día lo fueron, redes de pederastas que se multiplican como la espuma extendiendo sus viciosos y repugnantes tentáculos hacia lo más preciado de la humanidad, nuestros niños y niñas, nuestro futuro.

Diciembre ha muerto retorcido en sus mentiras en las máscaras de sus protagonistas que continúan con su teatro y nos incluyen como actores secundarios.

Tengo nostalgia de un nuevo mundo donde habiten personas con sentimiento de amistad, de justicia social, de igualdad, de libertad. Deseo que los Profetas se equivoquen, que la naturaleza corrija el rumbo hacia el precipicio al que se aproxima, necesitamos un nuevo amanecer donde el sol gane al frío y al viento.

Cámara y acción, comienza el año 2006, un nuevo presente y futuro que espero y deseo más justo.

MARTA ALARCÓN BETES
Coordinadora de Frida

# HAUTSITAKO ILUSIOAK

2005. urtea jipoitua eta egurtua joan zaigu. Irak eta Afganistango gudez gain, Txetxenia bezalako liskar armatu basatiak ere urte berrian zehar jarraituko dute. Urte berri hau, hala ere, gutariko askok poztasun eta aldaketekin hasi dugu; hori bai, munduaren alde honetan bizi garelako eskerrak emanez.

Izurri berriek gizateria astintzen dute, probezia, korrupzioa, haurren esplotazioa eta amildegirako bide geldiezinean jarraitzen duen ingurugiroa. Itxaropena fusilatzen duen balantzea.

Estatu Batuek eta Bretainia Handiak Irak inbaditu zuten: Sadam Husseinek zeuzkan sarraskirako armak egun leku ezezagunean jarraitzen dute. 2006. urtearen hasieran, gure familiarekin urte berri bat ospatzeko poz-pozik esnatzen ginen bitartean, Irakeko herria kaleak odol eta minez betetzen zituzten hiru bonba-autorekin iratzartzen zen. Non ote da giza duintasuna?

2005 haserre bizian joan da: tsunamiak, urakanak, galdutako gerrak, askatasunari mesprezuak, ume errugabeen hilarriak, gudari ezezagunen hilketak, profeta askatzaile faltsuak, gudako profesionalak, zeintzuk mundua lehian jartzea baino gauza hoberik ez duten, giza mina eta inpotentzia gure lepora igoz.

Gure herrialdean ere ez da urte hau hobe bukatu. Hirurogei emakume baino gehiago erailak izan dira bere bikote edo bere bikote izandakoen eskutik. Honekin batera, pederasten sareak harrigarriki biderkatzen dira bere biziozko tentakulu naskagarriak gizateriaren gauzarik preziatuenera zabaltzen, gure haurretara, gure etorkizunera.

Abendua bere antzerkian jarraitzen duten protagonista txantxotuen gezurretan bihurrituta hil da, eta gu antzerki honetan bigarren mailako aktoreak izatea behartzen gaituzte.

Mundu berri baten nostalgia dut. Adiskidetasun, berdintasun, askatasun eta gizarte justizia duen mundu berri baten nostalgia. Profetek huts egitea eta naturak amildegiranzko bidea aldatzea nahi dut; egunsenti berri bat behar dugu, non eguzkiak hotza eta haizea menderatzen dituen.

Kamera eta aurrera! 2006 hastera doa, justuago espero eta desiratzen dudan orainaldi eta etorkizun berria.

MARTA ALARCÓN BETES
Frida aldizkariko koordinatzailea